

BALDINTZA OROKORRAK ONARTZEN DITUT:

1.- Anulazioak eta Inskripzio tasak itzulpenari buruzko arauak:

***Diru itzulpenak:** Behin inskribatuta, **inolako momento edo kasuetan ez da diru itzulpenik egingo** baldin eta Justifikazio mediku baten bidez eskatzen eta adierazten ez bada.

Norbaitek udalekutik bukatu baino lehen aldegin beharko balu, bere guraso edo tutoreak sinatutako idatzi bat aurkeztu beharko da.

Bestalde, antolakuntzak udalekuaren dinamika edo arauak errespetatzen ez dutenen edo gainontzekoentzat kaltegarriak diren jarrerak dituztenen kanporatzea erabaki lezake eta ez da dirurik itzuliko.

Izena eman duen pertsona bat kanpamentuan dagoenean (lehenengo egunetik) eta etxera joan nahi badu, ez da dirurik itzuliko, bertze pertsona batek har zezakeelako plaza hori eta ezin izan duelako hartu.

Familia ugarietako edo guraso bakarrek familiei % 10eko deskontua egiten zaie. Kontu bat duten edo Rural Kutxan irekitzen dutenei 50 € itzuliko zaizkie kanpalekuaren amaieran, justifikatu ondoren. Itzulpen hauek bukaeran egiaztatzen direnean egingen dira.

2.- Larrialdiak eta garraioak: Antolakuntzak larrialdiren bat gertatzen bada beharrezkoak diren erabakiak hartzeko eta bere ibilgailuetan desplazamenduak egiteko baimena du.

Haurren batek udalekuan eritasun edo istripuren bat izaten badu antolakuntzak haurra osasun zentrora eramateko baimena izanen du baita medikuak agindutako sendagaiak emateko ere.

3.- Eritasun, alergia etb. izatekotan fitxan dagokion atala bete eta medikuaren txostena erantsi beharko da.

4.- Argazki eta irudiak: Adin txikikoen irudi-eskubideen legearen exijentziak direla eta, aurten **EZ DIRA ARGAZKIRIK** aterako kanpaldietan, ezta inolako irudirik web orrian zintzilikatuko ere. Azkeneko egunean talde Argazki bat ateratzen da tailertxo bat egiteko (etxera eramaten dute egonaldiaren oroigarri bezala), bakarren batek ez badu nahi talde argazki honetan agertu, oharretan agertu beharko du.

5.- Antolakuntza ez da arduratuko galtzen edo desagertzen diren umeen gauzetaz.

6- Galtzen diren edozein arropa edo objektuen itzultzea egitekotan, familiaren esku geldituko da itzultzearen ordainketa.

7- Txanda bat martxan jartzeko gutxienez 25 pertsona inskribatuta egon beharko dira txanda horretan.

8-Nahi izanez gero, 2026. urtean zehar 7 edo/eta 15 urte betetzen duten guztiak inskribatu ahaliko dira.